

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

tupustean	«Ahots ia ahaztua, hariaren beste muturrean. Mundu oso bat tupustean berritu dion ahots zorrotzegia.»
ifrentzu	«...anestesistak lasai egoteko esan eta erle bat jarri dio eskuaren ifrentzu gaineko azalean sartuta.»
bazka	«Animaliak lurra jo orduko, hantxe dira. Istant berean. Bazkarako prest.»
fite	«Argi luzeak eman eta kenduz, eman eta kenduz, esan diote bidetik albo batera alden dadila fite .»
aurki	« Aurki naiz neu ere hor, pentsatu du azkenez.»
petik	«Azpian hartu du joan zen ostiralean Urrutikoetxeak egin zion galderak eta ezin du ihes egin pisuaren petik .»
estreinakoz	«Ba ote norbait munduan minbiziaren albistea estrainekoz entzun eta ikararik egiten ez duenik. »
arrapostu	«Bai Jaione, bai Jaione, zuk nahi bezala Jaione, atera zitzaien Damiani arrapostu bezala.»
geruza	«Baina batere geruzarik gabe agertzen denean, aurrez aurre, ez dagoela zer eginik.»
opa (izan)	«...baina bizi-legea dela eta zoriona baizik ez diela opa gaur ezkondu direnei...»
fits	«Baina ez du fitsik esan.»
trapaila	«Baina krabatarako ere ez zagok gozo, trapaila apur bat harrotu duk eta.»
idor	«Barnean kotoia, kotoi zuri-zuria, eta kotoian orratz batez josirik, intsektu idor txiki-txiki bat.»
hagitz	«Batean Moskun eta bestean Erroman. Edo hagitz txarragoa, asmatutako lurraldeetan: Comalan edo Macondon.»
babo	«Batuetan baboa dirudizu, Arruti. Zergatik ez didazu lehenago esan.»
zirimola	«Begira geratu zaio garrari eta keak egiten duen zirimola kotoizkoari.»
paratu	«Berak paratuko zuela afari goxoa gauza guztiak ekarrita.»
oldar	«Bi hitz horiek esaten ez zuten guztian ezkututzen zela, batez ere, emakumeak Oxford Klubeko sarera eramaten zituen oldarra .»
txabusina	«Biluzteko eta janzteko txabusina berde bat, atzeko aldetik lotzen den horietakoa.»
ziega	«Bordeleko kartzelako ziega batean eduki zuten lehenbizi...»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

deblauki	«...burutik behera janzteko erlazainaren kaskoa luzatu dio deblauki .»
purrustaka	«Damian Arruti erantzun gabe geratu da, biraoka eta purrustaka .»
erreparatu	«Damian Arrutik autoaren motorrari eman zion indarra beste ezeri erreparatu gabe .»
atalase	«Damian atalasean geratu zen, paketetxoa eskuetan, Véroniqueren autoa makal eta lizarren artekezkutatut artean .»
eskerga	«...Damianek aldartea pozteko egin behar izan duen ahalegin eskerhari erreparatu ere egin gabe...»
aztoramen	«Damianek kafea eta Dexedrinaren nahasketari egotzi dio, azkenean, hainbeste pentsamendu ganoragabekoren aztoramena .»
doi	«Damianen autoa doan lekutik bost metro doitara edo..»
musu truk	«Denak eman ditut, musu truk .»
kitzikatu	«Dexedrinak bultzatzen duela ohartu da Damian. Kitzikatua dabil eta adimena erne.»
doi-doi	«Doi-doi dagoela bizirik pentsatu du orduan, doi-doi dagoela bizirik, hiltzen jarraitzeko.»
pixarra	«...egun beltzak hobeak dituk horretarako, batez ere euri pixarra baldin bada.»
noraeza	«Emakumearengan noraeza sortzen duela ikusi gabe.»
oren	«Esan berria zioten denboraren azken orena hurbil zeukala.»
txindurritu	«Eskuak txindurritu zaizkio eta entzumena ahuldu.»
minbizi	«Eta gaitz arinaren lekuan minbizia gainean duela irten da kontsultatik.»
argimutil	«...eta, klik, amatatu egin zuen gela argizatzen zuen argimutil bakarra.»
prefosta	«...eta saiatuko dela Gorkak eta Leirek arbolaren baten izena ezagutzen ote duten jakiten, Gernikako haritzarenaz kanpo, prefosta .»
hoben	«Eta zer, galdetu ei zuen. Hori ez dela inolako hobena .»
burrunba	«Eulien artera sartu dira hirurak sotoko geletako batean (...) Zoratu egingo direla burrunbarekin .»
leiar	«...euri tantoak Jeep Wrangler beltzaren leiarretan eta gaineko plastikozko estalkian tarrapatatan.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

tarrapatatan	«euri tantoak Jeep Wrangler beltzaren leiarretan eta gaineko plastikozko estalkian tarrapatatan .»
bardako	«Ez da bardako ametsa izan.»
oturuntz	«Ez dago oturuntzetarako . Eta sukaldaritzak ustekabeko metaforak ematen dituela pentsatzen aritu da.»
artatu	«...ez dakit zer gertatzen den gaur telefonoarekin, esan dio Lupek Damiani, atarian artatzera joan zaionean.»
izkirimiri	«Ez didazu izkirimiri a ulertu, Aldaba jauna.»
erreten	«Ez du atertu nahi. Igelak ere itoko dituk autopistaren erreten hauetan.»
ahitu	«Ezin duk egin beste inora, nahita ere. Hondarretan ahitzera hoa.»
kukutua	«Ezkutuko autoan, tiro egin duen gizonezko kukutua bolantean dela, egin dute alde.»
futitu	« Futitzen dela eulien gaiaz, baina ez horrela eulizalez.»
zantzu	«Gainera, Damianek zantzu arraro bat ere sentitu du.»
ortzi	«Garbi dago ortzia baina haize fin batek kristalezkoak bihurtzen ditu belarri muturrak eta sudurraren punta.»
suhi	«...gaur ezkondu direnei, bere alaba Mirari eta Javier Casadevante suhia , alegia.»
hantuste	«Giza gorputza era hartan zatituta ikustea izan zitekeela modu bat edonor betirako umiltzeko. Hantuste irmoenak birrintzeko.»
pozarren	«Gizon eta emakumeak dira pozarren dantzan.»
gutizi	«...gizon guztiz garbi haien jostailu huts izateaz, gizon haien gutizien gordeleku izateaz.»
hurrik eman ere ez	«Gizon horiek nortzuk ziren edo nork bidali dituen ez dakit. Hurrik eman ere ez .»
dirdaitsu	«...gorderik behar luketen aizto eta tresna dirdaitsu guztiak agerian...»
firin	«Haizearen firina baino ez da entzun ondorengo segundoetan, tarte handiagoa iruditu duten istant luzeetan.»
murriz	«Hala ere, hegaberen gogoeta egin du berriz. Gazteen hiztegi murrizarena ...»
abagune	«Halako abagunecetarako geratzen zaion lagun bakarrari. Ari, ari, ari.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

bizkarroi	«Han bakarrik sortzen den onddo txiki baten bizkarroi izanez bizi da <i>Phophila bahii</i> eltxoa.»
kapusaidun	«Hantxe ditu bere gauzak: poltsa bat eta kapusaidun jertsea.»
lirdinga	«Haragi mukitsua. Lirdinga .»
higuindu	« Higuintzen naute zure euli horiek guztiek.»
sasian	«Hobe, beraz, motorrak geratu gabe, tor-tor-tor, sasian ibiltzea.»
lepo kargatu	«Horixe da gaur eguneko garraioaren giltza: kamioiak, ontziak eta trenak lepo kargatu eta prezioak itxitakoan soilik deskargatzea.»
afixa	«Hormetako afixa handi batzuetan dituzte begiradak ezarriak.»
abaildurik	«Igandea da gaur. Baina berdin dio horrek abaildurik dagoen Damiani.»
bejondeizula	«Ikusi ere ez nauzula egin. Zure barnean bizi den ume izu horren argiak itsututa. Bejondeizula , beraz.»
iragaiten	« Iragaiten utzi diote eta Damianek eskertu egin du...»
osin	«Izarraizko osin batean, laurogeita sei metroko sakoneran, gorpu baten zatiak aurkitu zituzten joan zen astean...»
galbahe	«Izugarrikeriak ohituta gauzkala distantziara, telebista eta hedabideetako galbahera .»
diosal	«Jose Ramon Izpizuak motorrak martxan dituen ontzi baten txopatik egin dio diosal urrutitik...»
txopa	«Jose Ramon Izpizuak motorrak martxan dituen ontzi baten txopatik egin dio diosal urrutitik...»
golem	«...kalean doazen herritarren begi galduak ere nabarituko ote duten pauso bakoitzarekin golem astun bilakatzen ari dela.»
korrokoi	«Kartzinoma. Izena ere baduk hori. Ezkataduna gainera, legatzak, lupiak eta korrokoiak bezala.»
lahar	«Kolorgeak margo hartzen du eta lahar artean, arantzak ezkutatu eta masustak bakarrik ikusten dira.»
laborri	« Laborria eragiten dio Luperengan aurkitu duen senitartekotasunak...»
dilindan	«Lorategiko anemona artera erori da dilindan , tximeleta lez...»
arian-arian	«...Luperi ere gustatu zaio eta arian-arian , bigarren bat eskatu behar izan dute mahaitik jaiki baino lehenago.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

anartean	«Magnetoskopiaan berriro irudia jartzeko eskatu zion Aldaba doktoreari, ahal bezala eta anartean painelua eskutik gorde gabe.»
ziraun	«Medikuarengana etortzea erabaki arren, ez zuen pentsatu ere egingo halako ziraun luzerik sartuko ziotenik sudurretik barrura.»
kapar	«Memoriako oroitzapenen artean egonen dela helduta beti, kaparra bezala, bakardade eta zurztasun erabateko hartan gertatu zitzaiena.»
zurztasun	«Memoriako oroitzapenen artean egonen dela helduta beti, kaparra bezala, bakardade eta zurztasun erabateko hartan gertatu zitzaiena.»
birundan	«Mundu guztia baitabil beti gizonaren inguruan. Gizonaren epizentroan birundan jiraka.»
gaurgero	«Munstroa iristen denean iritsiko da eta orduan ikusiko, ez lehenago. Ala, iritsita dago gaurgero .»
akituta	«Nik ez diat honela ibiltzeko balio. Akituta nagok.»
lagin	«Non duzue mikroskopioa. Laginak behar ditut zati bakoitzetik, esan du gero.»
katabide	«Non ote dago hori. Zein ingurutan, zein gatewaytan, zein katabidetan .»
finitu	«Non ote denbora finitzearen usaina gardeniarenarekin nahasten duenik.»
berariaz	«Nonbaitetik berari tiroka ari direla dirudi. Berariaz .»
xabiroi	«Olagarroen orde, xabiroiak eztarrian.»
ataka	«Orain kontua egiazkoa da, ordea. Damianek ez daki nola irten atakatik .»
juzku	«Orduantxe ulertu du Damianek bere lana eta juzkua zein den ikerketarentzat erabakigarria.»
pitokeria	« Pitokeria batengatik haserretu eta elkarren berri jakin gabe ibili ziren urte batzuetan.»
goi-arnasa	«Sotil-sotila. Batere goi-arnasarik gabekoa. Mundutarra zeharo.»
kariaz	«Sudurraren ezkerreko zulotik atera berri zioten endoskopiaoren kariaz zegoen hala.»
isiotu	«Une hartan itzuli zen argindarra, ordea, eta piztu egin zen norbait sumatzearekin batera isiotzen den argi automatikoa.»
tarratada	«Zati guztiak irmoki zeuden paketatuak eta ez ziren asko apurtu hainbeste metrotan erori arren. Tarratada txikiren bat baino ez.»
endelegatu	«Zer du apartekorik honek, galdetu dio orduan Urrutikoetxeak, Arrutiren aztoramendua endelegatu ezinik.»